

...eta

Kitto!

842 zkio.
2013-IV-5



Nerbio sistemaren korapiloak askatzen

ESPEZIALISTAK BEGIEN OSASUNEAN

Ba al zenekien ikusmenaren azterketa lagungarria izango zaizula, **glaukoma**, **begi-lausoak** eta **begietako nekea** diagnostikatzeke?

IKUSMENAREN
HILEA

Multiópticas-en begien azterketa egingo dizugu, konpromezurik gabe.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



euskararen transmisioa

MINTEGIA

egitaraua

2013ko
maiatzak 7
astearta

EIBAR
Portalea
Kultur etxea

- 08,45 - 09,00: Akreditazioa eta dokumentazioa.
- 09,00 - 09,15: Ongi- etorria.
- 09,20 - 09,55: "Arrue ikerketa 2011: emaitza nagusiak".
Pablo Suberbiola soziologoa. Soziolinguistika Klusterra.
- 10,00 - 10,45: "Euskararen transmisioa Ipar Euskal Herrian gaur egun".
Jean Baptiste Coyos. Linguistikan Doktorea eta Euskaltzaina.
- 10,50 - 11,30: "Hurrek nola, gurasoek hala? Ideietatik aplikaziora".
Izaro Susperregi. Urtxintxa eskolako soziolinguistika arloko koordinatzailea eta garapen pedagogikoa arloko kidea.
- 11,30 - 11,45: ATSEDENA
- 11,50 - 12,25: "Emozioen eta euskararen transmisioa familietan: etxean zer ikusi, hura ikasi" tailerra.
Iñaki Pikabea. Psikologo, pedagogo eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Doktorea.
- 12,30 - 13,25: "Euskaldun hazi Nafarroan".
Paula Kasares. Soziolinguista eta NUPeko irakaslea.
- 13,30 - 15,15: BAZKARIA
- 15,20 - 16,00: "Ahotsak.com Ikasgelan - Nagusien ahozko ondarea ikastetxeetan zabaltzeko transmisio-proiektua".
Idoia Etxeberria, proiektuaren arduraduna; eta Asier Sarasua, Badihardugu Euskara Elkarteko presidentea
- 16,05 - 17,40: Mahaingurua.
Dinamizatzailea: Kike Amonarriz.
- 17,40 - 17,45: Agurra.

Antolatzailea:



Euskararen Transmisioa

Babeslea:



Laguntzaileak:



IZEN-EMATEA
apirilaren 8tik aurrera
(25€, bazkaria barne)
Informazioa: 943-200918
normalizazioa@etakitto.com



ASTEAN ESANAK

"Azken aldian kaleratu dituztenei etxeak laga izan genizkien Caritasen, baina artzapezek gelditu egin zuten hori. Parrokia bateko buruak ez du zertan apaiza izan; emakume bat izan zitekeen lasai"

(JOXIN ARREGI, CARITASKO KONSILIARIOA)

"Nature aldizkarian agertu denez, Chicago eta Buenos Airesko unibertsitateetako zientzialariek egindako ikerketa bati esker jakin dugu lo dauden bitartean, txoriek, batzuetan, beren kantuekin behintzat amesten dutela"

(KOLDO ALMANDOZ, KAZETARIA)

"Txinatarrek jango gaituztela? Guk baino arazo gehiago dituzte eta! Baietz euren artean jan, lurra, ura eta airearengandik borrokan. Ez dira mehatxua guretako; gu baino lehenago desagertuko dira. Ez izan zalantzarik"

(BRUNO LATOUR, SOZIOLOGOA)

"Uste bagenuen emakumeek arazo guztien soluzioa zirela, oker geunden. Gaur egun politikan daudenak gizonak baino beldur handiagoa ematen dute: euren semea gerrara bidaliko lukete erreparorik gabe"

(JAVIER GURRUTXAGA, ABESLARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JARDUN-LEKU.- Tertulixia, gaztelera 'mentidero'. "Hárek batzen diran lekua, nunahi, jardun-lekua".

JARDUN BIHAR.- Esamesa, autua. "Jendiaren jardun biharra galdu eban bere onenian".

JARDUN GURA.- Autuan, marmarrean ibiltzeko gogo. "Ez jako falta jardunguria harek eigiten daben guztiaren kontra".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitetzke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarteak

ARGITARRAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ullasia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Alex Arriolak aurretik Txinan, Gamesa eta Cie Automotiven jardun dau lanian.

Alexander Arriola, SPRIko zuzendari nagusia

Martxuaren 22xan izendatu eben Alexander Arriola Lizarriturri eibartarra SPRI-ko zuzendari nagusi. SPRI Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikitako soziedade publikua eta Eusko Jaurlaritzako enpresa garapenerako agentzia da eta bere helburu nagusixa euskal enpreseri bultzadia emotia da. Zuzendari izendatu barrixa industria antolakuntzako eta informatika kudeaketako ingenierua da eta bost hizkuntza dakiz. Arriolak azken sei urtietan zuzendaritzako goi-karguetan jardun dau Txinan, Gamesa eta Cie Automotive euskal enpresendako biharrian; bixetan erosketen zuzendarixa izan da. SPRI Taldia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailleko aurrekontuaren %75 kudeatzen dau, zerbitzu, programa, inbersiño eta diru-laguntzen bidez.

Andres Prietoren artxibua

Udal Artxibuan, Andres Prieto Arana Fonduan dagoz Frantziako erresistentzian ibilli zan eibartarraren dokumentu guztiak. Andres Prietoren famelixak 2009xan emon zetsazen Artxibuari interes historiko handixa daken hainbat agiri eta 2012xan, Prieto hill eta gero dokumento gehixago eruan zetsazen. Dokumentuak Atzerriko Boluntarixuen Batalloia eta "Gernika" Euskal Batalloia erakundien antolaketiari lotutakuak dira. Eibarren 1918xan jaixo zan Prieto oso gazte zala sartu zan Juventudes Socialistas-en. 1934ko urriko iraultzan atxilotu eta Iruñeko espetxera eruan eben. Frente Popularrak hauteskundiak irabazi eta gero Eibarko Epaitegiko administraziñoko ofizial izendatu eben. Gerran, Irun, Tolosa, Lasarte eta beste hainbat tokittan ibilli zan frentian. Gernika bonbardatu ebenian bertatik bizirik urtetzia lortu eban, baiña barkuan ihes egittera zoianian Francoren tropak harrapau eben eta Pontevedra, Santoña eta Teruelen kartzelan urtiak emon zittuan. 1938xan heriotza-zigorra ezarri zetsen eta zigorra konmutatu eta ge-



ro, beste zazpi presorekin batera Frantziara hanka egiñ eban. Erbestian Unión Nacional Española-ko militantia izan zan eta Frantziako erresistentziaren alde jardun eban, bestiak beste. Eibartarren Ahotan proiektuaren barruan hainbat elkarrizketa egin zetsazen eta hórretxek www.egoibarra.com webgunian eskuragarri dagoz.

Android telefonuetarako GPS ikastarua

Apirillaren 12xan (16.00etatik 20.00etara) eta 13an (09.30etatik 13.30etara) Android telefonuetarako mendiko GPS ikastarua emongo dabe Eibarren (tokixa ziheztu barik dago). Ikastaruan, bestiak beste hónek gaixak landuko dittue: oiñarizko konzeptuak, mendiko



GPSiarekin konparaziñua, aplikaziñuaren instalaziñua, Oruxmaps-en mugidu, praktikak eta PC / internet. Gehixen jota 12 lagun onartuko dittue talde bakoxtian eta ikastaruk 20 euro bali-xo dau. Informaziño gehixago nahi dabenak edo izena emoteko eitten.team@gmail.com helbidera idatzi edo 688846537 telefono zenbakira deittu leike.



BLANCA ERRAZU AZKARATE (2013-III-29)

*Garai batean haurtxoa zena / ta amona geroago
seme-alabak eta bilobak / goza dituzu luzaro
mundu hontako ibilbidea / hala behar da akabo
baina benetan diotsut Blanka / ni oso seguru nago
gaurtik aurrera nonbait badela / larrosatxo bat gehiago.*



Urkizuko itturrixa konpontzen

Azken egunetan eziñ izan da Urkizuko itturrixa erabili, bertan biharrian dabizelako. Izan be, iturrirako uraren iturburua ez dago itturri-xan bertan, Urkizu kalian bertan, piskat beherago baiño (La Golosina inguruan). Handik itturiraiño ura eruaten daben hodixak urtekin hondatzen jua dira eta hórretxek kanbixatzeko biharrian dihardue. Horregaittik, eta biharrak amaittu bittartian itturrixari txorrota kendu detse eta ura edateko ona ez dala diñuan oharra ipiñi dabe, baiña biharrak amaittu eta itturrixa atzera be zabaltziarekin batera betiko moduan bertako ura hartzeko aukeria egongo dala azaldu deskue Zerbitzu arlokuak, urak betiko moduan edateko ona izate segiduko dabelako.



Aste honetan barriro martxan egongo dala uste dabe. SILBIA HERNANDEZ

Semaforo bi gehixago Untzagan

Batek baiño gehixagok sorpresia hartu dau azken egunotan Untzagan bidia pasatzera juatian, oiñ arte bakarrik zebrabidia eguan tokixan oin semaforo barri bi daguazela ikustian. Untzaga



ga plazatik (udaletxia dagan plazatik) Ego-Gaiñera pasatzeko tokixan ipiñi dittue semaforuak, oiñezkuen segurtasunerako. Izan be, 2010-ian oiñezko bat bertan automobil batek harrapauta hil egin zan.

Oiñezkuendako segurtasuna billatzen dabe neurrixarekin. SILBIA HERNANDEZ

autuan

BASARRI-PAISAJIAK

Debemenek gure eskualdeko basarri-paisajiak dakan balixua agerixan lagatzeko biharrian dihardu eta, horren harira, helburu hori lortzeko proposamenak egittuko saia antolatu dau: Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan egingo dabe saia, hillaren 24an (eguztena) 19.00etatik 21.00etara. Saio irekixa izango da, baiña jua nahi dabenak alde aurretik horren barri emotia eskatu dabe paisaia.atl@paisaia.com helbidera idatzitta edo 686738152 / 943335048 telefonuetara deittuta.

1938-XAN JAIXOTAKUAK

Apirillaren 26xan ospatuko dabe diamantezko urteurrena urte horretan jaixotakuak, bestiak beste Unzaga Plaza hotelian bazkalduta. Jua nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau, Kutxako 20955035009112626121 kontu korrontian 55 euro sartuta.

BARRIO autobusak eta mikrobusak



www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K



☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7

943 56 71 59 naturalbiodenda@gmail.com
naturalbiodenda.com

natural

BIO • DENDA

Osasuna jateko

Bidebarrieta, 6



SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOA IKASTAROA Portalean
Apirileko lau zapatuetan:
10.00-13.30
Interesatuak deitu
943 56 71 59 zenbakituta

asteko 250 datua

eibartarri IBI (higieziñen gaiñeko zerga) dalakua %50 gehixago kobrauko detse Udalak, erabilli bariko etxietako jabiekin holan jokatzea Udalbatzak hartutako erabagixari jarraituta. Beste herri batzuetan igoeria %100ekua eta %150ekua izan da.

Dolmenen ibilbidia eskualdeko turismo eskintzan

Aste Santu aurretik aurkeztu eben Debegean Dolmenen Ibilbidia: Karakate-Irukurutzeta mendileruan dagozen trikuharri eta tumuluak ezagutzeko aukera paregabia emoten daben Dolmenen Ibilbidia (PR-Gi 94) 20 kilometro dakaz eta Karakate-Agirreburu banalerrua ziherkatzen dau, Elgoibar, Soraluze eta Bergarako udalerrixak lotuta. Paisaje ederrarekin gozatziarekin batera, gure arbasuen aztarnak ezagutu geinkez ibilbidia jarraituta. Bidian Elosua-Plazentzia estaziño megalitikua osatzen daben tumulu eta dolmen multzua topauko dau mendizaliak. Debarreneko eskin-



tza turistiko osua www.debarrenaturismo.com webgunian oso modu erosuan konsultau leike. Gaiñera ibilbidien liburuxkak eta beste material asko bertatik zuzenian jaitsi eta gordetzeko aukeria be emoten dabe.

Bixarko jaialdixa atzeratu dabe

Zona 10 alkartekuak Sabadell Guipuzcoano bankuarekin alkarlanian bixarko antolatutako jaialdixa bertan behera lagatzia erabagi dabe, aurrerago egitteko asmuakin. Azken orduan hartutako erabagixa izan da, eguraldirako iragarpenak eragindakua. Bixar oso eguraldi eskasa egingo ebala entzutian, antolatzailiak jaixa beste egun batian egittia hobe izango zala pentsau eben. Aldizkarixa inprentara bidaltzeko orduan data barrixa konfirmatzeke eguan, baiña jaixa hurrengo asteburuan egittia nahi eben.



Aparkaleku barrixa Blas Etxeberrian

Oin dala pare bat aste zabaldu eben Blas Etxeberria kalin egin barri daben aparkalekua. Pagaegi kalin gora, Estaziño kaliaren atzeko al-dian prestatu daben aparkalekuan 15 bat ibilgailurendako tokixa dago eta sarrera libria da.

Udaltop topaketia

Udaleto euskera-zerbitzuen Udaltop topaketia egingo da Lasarte-Orian apirilaren 25ian eta 26xan eta parte hartu nahi dabenendako izen-emotia zabalik dago. Interesa dakanak hiliarren 19rako emon biharko dau izena www.udaltop.com webgunian. Informaziño osua be bertan jaso leike.



● **tartak**

● **enkarguak**

etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK ● ESKELAK ● HILARRIAK ● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 fax: 943 202564



IZARO KORTAZAR (neurologoa)

"Gaixoei zer duten esatean galdera ugari sortzen zaizkie"

Euskal Herriko Unibertsitatean medikuntza ikasi eta ondoren neurologia espezialitatea Galdakaon egin duen 29 urteko eibartarrak hilaren 23an hitzaldia emango du Portalean, 19.00etan, Eibarko Medikuntza Zentruak hilero antolatutako saioretako egitarauari jarraituta. Ikasketak amaituta Txagorritxun eta Bartzelonan jardun du beharrean eta laster Urkizuko medikuntza zentruan kontsulta pasatzen hasiko da. Nerbio-sistemari lotutako gaitzak sendatzea helburu duen medikuak horien gainean berba egin digu.

- Hitzaldiaren izenburua "Alzheimer, Parkinson y otras enfermedades degenerativas. Resolviendo dudas" da. Zeintzuk dira ba gehien agertzen diren zalantzak?

Aipatutako gaixotasunen inguruan zalantza ugari izaten da, gaixoari berari sortzen zaizkion duda eta zalantzetatik hasita. Izan ere, gaixoa sendagilearen kontsultara joaten denerako badaki zerbaitek gertatzen zaio, hau da, zerbaitek beharko lukeen moduan funtzionatzen ez duela konturatuta ailegatzen da kontsultara. Gaixoak oro har arduratuta egoten dira eta, horregatik, zer gertatzen zaien esatean, zalantza eta galdera asko sortzen joaten zaizkie. Eta gaixoei ez ezik, horrelako gaixotasunek zaintzailer, senitarteko eta ingurukoiei ere eragiten dienez, horien artean agertzen diren zalantzak ere asko izaten dira. Portalean emango dudana hitzaldian azalpen batzuk emango ditut, baina batez ere jendeak galderak egitea eta parte hartzea nahiko nuke.

- Gero eta gehiago entzuten ditugu horrelakoei lotutako albisteak. Lehen baino ka-

su gehiago daude ala orain dela urte batzuk ez ziren horren ezagunak?

Gaixotasunak ez dira berriak, betidanik eman dira horrelako kasuak. Pentsa, Parkinson gaitzaren lehenengo aurrekariak orain dela 2.000 urte edo lehenago idatzitakoetan aurkitu dituzte. Gaixotasuna izendatu barik ere, sintoma eta bestelakoak irakurtzean zertaz diharduten argi ikusten da. Gure gizartean gero eta bizitza luzeagoa izatea lortu dugu, baina biziraupena luzatzearekin batera zahartzaroa bera luzatu egin da eta, beraz, logikoa da horri lotutako gaixotasunak ugartzea.

- Gaixotasun degeneratiboak dira, baina gaixoen bizitza kalitatea hobetzeko tratamenduak eta sendagaiak egon badaude, ezta?

Sendagile modura, gure helburu garrantzitsuena gaixotasunen prebentzioa da. Baina zoritxarrez prebentzioa ez da beti posible izaten eta, beraz, hurrengo helburua gaixoen sintomei erantzuna ematea, hau da, tratamendua da. Gaixotasunen in-

guruko diagnostikoa gero eta azkarrago egitea lortu da eta horrek garrantzi handia dauka. Izan ere, gaitz degeneratiboei aurre egiteko tratamendu eta sendagaietan azken urteotan emandako aurrerapausoak oso handiak dira eta, gainera, arlo horretan etenbarik ikertzen dihardute.

- Eta horri esker gaixoen bizitza kalitatea hobekuntza nabarmena izan du, ezta?

Bai, batez ere horretan eman dira aurrerapausorik garrantzitsuenak. Hemengo neurologoen lehenengo promozioak orain dihardute jubilatzen eta, seguruenik, beharrean hasi zirenean nekez pentsa zekaketan gaur egun gauden puntuan egongo ginenik.

- Neurologiari lotutako gaixotasunen zereñdan burmuinari zuzenean eragiten dion Alzheimerra dago. Bereziki zaila da horrelakoak ikertu eta ulertzea?

Bai, burmuinaren funtzionamendua betetan konplexua da, baina hala ere arlo horretan ematen diren aurrerapausoak ikaragarriak dira.

ROSARIO BENGEOA ESKIBEL

2013ko martxoaren 11n hil zen, Arrasaten



Bere aldeko **MEZA** egingo da apirilaren 7an, domekan, goizeko 11.00etan hasita, Azitaingo parrokiari.
ALDEZ AURRETIK, MILA ESKER FAMILIAREN PARTETIK.



Kaltzetiñari bueltia emoten

Errebal eta Ospitalaren proiektuak berraztertzen

Merittutzat hartzen da sasoikuari egokitzea eta, gauza batekin temoso jarraitzea baiño, behiñ halakuari ezin jakola eutsi iritzitta, beste bide aproposago bati jarraitzea. Bide horretatik jotzeko asmua dake Errebalgo oiñ arteko amaierarik gabeko proiektuarekin, eremu horretan behin betiko eraikiña egiñ eta egokixena zein izango da asmatze bidian. Otaola etorbidian egittekua zan sub-aguduen ospitalarenak be bide barrixari ekingo detsala emoten dau eta zalantzan ipiñi da proiektu hori aurrera erungo dan, beste lehentasun eta premiñak badagozela argudiatuta. Halanda be, proiektu bixak aurrera egittekua asmotan dihardue, baiña hasierako asmuak asko aldatu dira, kaltzetiñari bueltia emoterañi.

Udalak hillabete honetan bertan -"datorren asterako" esan deskue- kaleratuko dau Errebale-rako erabilleren inguruko proposamen barrixa. Gobernu-taldiak, gaiñera, horren inguruan gero eztabaida zabala egittekua asmu daka "inplikaturako eta interesa daken iritzixak jasotzeko" Eneko Andueza Urba-

nismoko ziñegotzixaren esanetan. "Herrixaren premiñeri erantzun gura detsagu holan eta, aldi berian, inguru horretako merkataritza-jardueria bizibarriztia". Zein proposamen aurkeztuko daberen eztabaidatzeko? Autobus geltokixa, oiñ arteko merkatu plazia eta leku estalixa hartuko dittuen proiektua, "egoera barrira ego-



Egungo egoera ekonomikuak Errebalgo proiektua barriz planteatzera eraman dittu udal-arduradunak. SILBIA HERNANDEZ

Beharrezkua ete da sub-aguduen ospitala Eibarren?

ERITZIXAK EZ DATOZ BAT. Eusko Jaurlaritza aldatziarekin bat, gobernu barrixak berehala baztertu eban aurrekuak zeukan asmua eta horrek zuzenian eragin desku eibartarori, jendia aspaldi mobilizatzen ez zan moduan mobilizatzeraiño. Gaur egun 7.000 siñaduren bueltan jaso dira eibartarrak osatutako plataforma ba-

tek sub-aguduen ospitala gurian egittekua prestatutako manifestuaren alde. Hamalau elkartek egin zeber bat hasierako asmo horrekin (gero beste batzuk gehittu jakuez), tartian herriko Jubilatue Etxe guztiak, eta siñadura bilketak aurrera jarraitutako dau hillabete honetan herriko hainbat dendatan.

Jon Darpon Eusko Jaurlaritza-kontseillarixak esan dabenez, "gobernuak ez dauka ospital hori lehentasunen artian eta, gaiñera, Eibarren 19 ohe besterik ez dira falta. Gaur egungo krisi egoeriak ez dau halakorik baimentzen". Siñatzailliak, baiña, beste modu batera ikusten dabe Eusko Jaurlaritza-kontseillarixak proiektua baztertzia eta ospitala komenigarrixa oso "Eibar Euskadiko mapa sanitarixuan kokatuko leukielako, Debagoiena, Debabarrena eta Lea-Artibaiko jendiaren beharrieri erantzungo leikixoelako, ixa 200.000 laguneri".

Sub-aguduen ospitalarena be beltz ikusten dau Juan Sanchez-Vallejo gure herriko medikuak eta Euskadiko Sindikatu Medikoko partaidiak. "Bengoia lehengo kontseillarixaren egitasmuan zerguan zeozer da, epe luzera begira eta oiñ hiru urte kaleratu zana. Geruago, nire esperientziatik, harremanetan jarri nintzen bai alkatiarekin eta baita ziñegotzixekin be, jendiaren artian gezurrezko ilusiñuak ez pizteko eskatuz, baiña kasurik be ez deste egin". Sanchez-Vallejok informaziño falta ikusten dau prozesu guztian "eta horrek eruan gaittu bost millioi euro eta erdi gastatzera kontaminatutako lur batzuetan". Normaltzat hartzen dau eibartarrak ospitala egitiaren alde egotia, "gertutasunari begira bada be. Ni be ez nago kontra. Baiña onartu bihar dira lehentasunak eta, esaterako, Tolosaldiak horren premiña haundixagua daka, han oindiok ospital komarkal barik daguzelako". Informaziño falta horren adibideztat jotzen dau, "jendiak ustia hau Mendaroko ospitalaren parekua dala, gaixo kronikuendako danian". Mendaro bera "infrautilizatuta dago" bere esanetan.



kittuagua". Honezkeru hainbat urte bete dittuan, baiña gaurgaurko dan ezaugarriak bulztatuta, Udalak txostena eskatu zetsan Merkataritzari Laguntza Teknikua eskintzen detsan Gabetiari. Otsaillian aurkeztu eben txosten hori eta, horri erantzunez, "hartu da erabagihau, Udaleko alderdi politikueri eta Eibar Merkataritza Gune Irekixari be jakiñarazi jakuena".

Merkataritza sektoriaren egoeria

Normala danez, gaur egungo datuak ez dira onenak eta, hollan, "2008raño famelixen konsumua gorantza egiñ eban moduan, ordutik hona asko jaitsi da, batez be azken urtiotan", Leire Ojanguren komertzio-teknikarixak aurkeztu dabenez. 2011n kontsumitzailliak %4 gitxiago juan ziran zentro komertzialetara, 2012xan, barriz, ixa beste hainbeste txikitu da kopuru hori, "gaiñera, hillez-hille nabarittu dana". 2008ttik hona izandako jaitsierra lineala izan da ixa, 2010eko urtia kenduta, "hor nahiko ondo eutsi jakon-eta, batez be Euskadin, Eustatetik etaratako datueri begiratuta".

"Enpresa unilokalizatuak eta

kete txikixak" dira krisixa txartuen hartu dabentak, superfizie haundixekin batera. 2006ttik hona euren negozioko herena galdu dabe hórrek komertziuak. Hobeto eutsi detsenen artian, bestalde, "kate haundixak eta txikixak dagoz, denda potentiaik diralako, ondo kokatutakuak, eta prezio bajuekin beldurtutako kontsumitzaillari eusten detsenak".

Hainbat arazo hasteko

Proiektu barrixaren inguruan, eta aurkeztu aurretik, hainbat zalantza sortu dira, autobus estaziñua hor juatiarekin hasitta. Lurraldebuseko hainbat gidarik lehen be toki horretan eta gaur egunian Ego-Gaiñen bertan dittuen arazuak gogoratu dittue, "gure ibilgailuak 15 metroko luzeria dake-lako eta lehen be Bidebarrietako geltokixa San Agustiñen ezin gendualako bueltia emon kendu egiñ ebelako". Badira estaziñua Matsarixara eruan nahi dabentak be, baiña "erdigunetik asko urruntzen delako" baztertuta daka asmo hori



Errebalgo proiektuak aspaldittik pistu dau jendiaren interesa. SILBIA HERNANDEZ

udal-gobernuak. "Espaziua egonda be, herrittarrari mesederik ez zetsan egingo holako erabagixak", diñue. Anduezak Obretako udal departamentuan informia eskatu dabela esan desku eta "aukeria ikusten dala autobusak Errebalen bueltia emoteko". Dena dela, aurrez esanda moduan, prest dagoz guztiekin eztabaidatzeko, "baitta gidarixekin be".

Aldeko jarrerak

Maixa Eibarko Herrittarren Parte-hartze Mahaixak be espero dau oinguan eta "behingoz" proiektuaren inguruan "danon parte-hartzia izango dala". Oñ arte halako gitxi egon dala kejatzen dira mahai horretatik eta benetan betetzen dan esperuan dagoz. Bil-

duk be martxuaren 22xan emondako prentsurrekuan proiektua berraztertziaren alde agertu ziran eta "lehengo proiektuak baztertuta, errealdidiari hobeto erantzungo detsan" asmuaren alde egin dabe. Denborak arrazoia emon detsela diñue.

Dia eta Mercadona

Bestalde, azken aldixan ittatu dan Dia eta Mercadona supermerkatuak Eibarren dendak zabaltzeko daken asmuaren inguruan, "Udalian Dia-ren kontsulta pare bat jaso dittugu, Larrañaga y Elorza fabrika izan zanian kokatzeko. Mercadonaren izenian ez da iñor etorri, bi partikularrek galdetu badabe be" esan desku Eneko Anduezak.



Batzar irekia:
 Apirilak 10 asteazkena 19:00etan
 Portaleako ikastaro gelan
 Gaiak:
 Hondakinen kudeaketa
 Autobus geltokia



Funeuskadi Eibar
 SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27 Bulegoa: Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra
 © 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
 El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao ·
 · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe ·
 · Espinosa de los Monteros ·



Institutuko ikasleen eguneroko islak

Badira hainbat urte Ignazio Zuloaga institutuan batxilergoa ikasten diharduten gazteen artelanak urtean behin erakustearen aldeko apustua egin zutela. Eki-mena 1999-2000 ikasturtean ipini zuten martxan lehenengoz eta, urteak joan urteak etorri, ohitura bihurtu da. Aurtengoa apirilaren 12tik 28ra bitartean egongo da erakusketa Portalean bisitatzeko aukera, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

Datorren astean atek zabalduko dituen erakusketa batez ere batxilergo artistikoa ikasten dihardutenen lanekin osatutakoa izango da, baina horiekin batera batxilergoko beste adarretako hainbat ikasle ere hartuko dute parte. Angel Guenaga irakaslearen berbetan, "erakusketa antolatzearen helburu nagusia ikasketa artis-



tikoak egitea aukeratu duten ikasleek sortutako artelanak jendearengana gerturatzea da eta, horrekin batera, erakusketak ikasturtean zehar egindakoak plazaratu eta ezagutzera emateko modua ere bada. Urteroko ekimenak aste biko

iraupena izaten du eta Portaleko erakusketa aretoan egoten da ikusgai".

Arte irakasleak aurreratu dituzten, "irakasgai ezberdinetako klaseetan ikasleek landutako hamaika lan ikusteko aukera izango da erakusketan: ma-

razketa tekniko eta artistikoa, diseinuaren oinarriak (barne diseinua, grafikoa eta industria-la), margogintza, zeramika, argazkigintza, ikus-entzunezkoak... piskat denetarik erakutsiko dute". Aurtengo edizioan, gainera, bada berritasunik: Ikus-entzunezko Kultura ikasgaiko ikasleek animaziozko filmak egin dituzte eta horiek erakusketan erakutsiko dituzte.

Gainera argi laga nahi dute ikusgai ipiniko dituzten artelanak klaseetan landutakoak direla eta ez bereziki erakusketarako sortutakoak. Hortik erakusketaren izenburua: "Ignazio Zuloaga institutuaren Egungo Islak".



eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



ARGAZKIAK: LEIRE ITURBE

Moda dendatik kaleraño etaratzten

PELIKULETAN SARRITTAN IKUSTEN DITTUGU DENDA ELEGANTIETAN bezeruendako arropak modeluak desfileetan presentatzen dituela, baiña oiñ arte behintzat ez gagoz ohittuta horrelakua Eibarren ikusten. Edozelan be, udaberri-udarako proposamenak aurkezteko moda desfilia egin barri dabe Zuloagatarren kaleko Valenciaga jantxidendan. Arrate Balentziaga dendako ugazabak jendiak dendan daken eskintza zabala bertatik bertara ezagutzia nahi eban eta horretarako modurik onena dendan bertan pasarella preparatzia izango zala pentsau eban. Holako saltsatan sartzen ziran lehelengo aldixa izanda, azken hillian biharian gogotik jardun dabela kontau deskue desfilea egiñ eta egun gitxira, "batez be azken aste bixetan", baiña emaitza ikusitta errepikatzeke gertu dagoz: "Ikustera etorri zan jendak esandakuak entzunda animauta gagoz eta, gaiñera, erakutsitako erropetako batzuk eskatzen hasi dirala be konturau gara, beraz pozarren gagoz".



diak esandakuak entzunda animauta gagoz eta, gaiñera, erakutsitako erropetako batzuk eskatzen hasi dirala be konturau gara, beraz pozarren gagoz".

Pasarelan protagonistak izan diran modeluak aukeratzeko probetara gazte mordua presentau zirala azaldu deskue, "gaiñera neskek baiño mutil gehixago etorri jakuzen". Azkenian bederatziz gazte, hiru mutil eta sei neska hartu zittuen Valenciagako jantzixak erakusteko: Alex, Irene, Onintze, Olaia, Ernai, Amagoia, Andoni, Izaskun eta



Paula. Eta desfilerako oiñetakuak kale bereko Mabe zapatadendakuak lagatokuak izan ziran. Arrate Fernandez kazetarixak aurkeztuta, kalerako, ospakizun berezixetarako, hondartzarako eta lotarako moda presentau eben modelo gaztiak. Erretuetan argi ikusten dan moduan, dendan gustu eta adin guztiendako eskintza aproposa dakela erakutsi eben. Eta horrekin batera, zelan ez, herrixan bertan glamourez gaiñezka egitteko modukuak daguzela agerixan laga eban desfiliaik.



Arrate Fernandez kazetarixak presentau eban desfilea; berarekin Arrate Valenciaga.



Valenciagako jantzixeri laguntzen Mabeke zapatak eruan zittuen.



Valenciaga Memoriala gurpil gaineko asteari azkena emateko

Estatuan jokatzeko den zaletuen mailako proba garrantzitsuena jarraitzen du izaten Eibarko Txirrindularitza Elkarteak antolatzen duena eta, 42. edizio honetan ere, zazpi txirrindulariz osatutako Espainiako Kopako 28 talde garrantzitsuenen parte-hartzea izango du gure inguruko errepideetan. Aurreko asteko martitzenean aurkeztu zuten antolatzaileek 164 kilometroko proba, azken urteotako ibilbide berarekin eta, horrez gain, iazko helmuga tokia errepikatuz: hau da, Armeria Eskolaren parean, horrek lasetatik gorako azken metroei ematen dion bizitasuna aprobetxatuz.

ELITE ETA 23 URTETIK AZPIKO TXIRRINDULARIAK izango dira domekako lasterketan eta asko dira Eduard Prades iazko irabazlearen lekukoa hartzeko borrokatuko dutenak. Irteeran izango diren 196 txirrindularien artean, iaz bigarren amaitu zuten Coluer taldeko Aidan Fernandez, Gsport-eko Vicente de Mateos, Eki Sport-eko Joseba Del Barrio eta Gorka Igoera irabazi berri duen Mutua Levantekko Cristian Cañada daude faboritoen artean. Hori bai, Debabarrenako Borja Abasolo ahaztu gabe, abadiñotarra pro-

ba guztietan nabarmentzen baita, asteburuan bertan Frantziako Mont Pujolsen erakutsi zuen moduan (4.a izan zen eta Jokin Etxabe eta Mikel Hernandez ere bikain ibili ziren).

Ermutik lehenengo eta Maltzagatik gero

Untzagatik 08.55etan abiatuta, irteera neutralizatuari jarraituz, handik bost minutura emango zaio irteera ofiziala lasterketari Azitainen. Hortik Debara joko du trope-lak eta, Itziarko eta Meagaseko gainak behin gaituta, Zarautzetik Maltzagara



etorriko dira zuzenean, hortik Soraluze jartzeko, Bergarako Uberatik pasatu eta Elgetako gaineraino. Gero Elorriora joango dira eta, behin Areitio gaituta, Ermutik sartuko dira Eibarrera (**Unibertsitate Laboralean 12.15etan** gutxi gorabehera). Gurean tarteko helmuga izango dute eta Ixuako gainaren bila joango dira; handik, San Miguel gaina ere pasatuta, Elgoibarrera jaitsiko dira eta Maltzagatik gurean berriro sartuko, azken helmugaren bila (**13.00a bueltan**).

Debabarrena harrobia zaintzen

25 urteko Borja Abasolo talde liderrarekin batera, 24 urteko Sergio Ruiz eta Mikel Hernandez, 22ko Mikel Lopezosa, 21eko Jon Rivero, 20ko Xabier Bengoetxea, Hodei Orobengoa eta Xabier Peñagarikano eta 19 urteko Beñat eta Jokin Etxabe, Xabier Gallastegi, Aitor Alonso eta Eibarko bikoteak (Jokin Bergara eta Julen de Blas) osatzen dute denboraldi honetako Debabarrena taldea. Lehendakari eta Euskaldun Torneoetako probetan hartuko dute parte eta baita hainbat klasikoetan, txapelketetan (Gervais Memoriala eta Euskadiko txapelketak, erloju kontrako tartean) eta itzulietan (Arabako Hiru Eguna eta Bidasoako eta Nafarroako Itzuliak). Guztira, 80-90 lasterketetan hartuko dute parte otsailean hasi eta irailaren erdi aldera arte iraungo duen denboraldian.



Ibon Romero, Maria Gallastegi, Amets Txurruka eta Juanjo Sebastian oran dela urte batzuetako Euskal Bizikletako etapabaten hasieran. SILBIA HERNANDEZ

Emakumeen talderik gabe

Juanjo Sebastian Eibarko Klub Deportiboko taldearen prestatzaileak onartu behar izan du, azkenean, aurtur emakumeen talderik gabe aurrera egitea: "Kirol politika errealistagoa jarraitu behar delakoan nago, ez bakarrik di-

ru publikoa banatzera mugatzen dena. Bizkaian bi talde profesional zeuden, Bizkaiko txirrindulari bakarrarekin. Guk, bestalde, hamasei txirrindularitik, Gipuzkoako hamabi, Bizkaiko bi eta Kataluniako eta Frantziako bana genituen. Eta gu geratu gara

kanpoan, atzerritarren fakturarik ez baikenituen aurkezteko. Dena dela, lehenengo egoera ere ez zen normala: lasterketetan zortzi herritako eskualdea ordezkatzeko zuten taldea Estatu Batuak, Txina, Alemania edo Errusiako selekzio nazionalak ordezkatzeko zitezuten autoen artean joatea lekuz kanpo zegoen", dio Sebastianek.

Valenciaga Memorialari begira, Abasolorekin du konfiantza Juanjok, "irabaztea zaila dela jakinda ere". Pasatu ziren, dena dela, proba irabazteko profesionaletaraz jautzia ematera eramaten zituzten sasoiak: "Azken aldia gure taldeko txirrindulari gehiago pasatu dira profesionaletaraz Valenciagako irabazleak baino. Profesional-ohiak eta horrelakoak hor egonda, jendeak gehiago erreparatzen die talde txikioei".



XXXII. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 7)



GARAILEA



MENDIA



TARTEKO HELMUGAK



23 URTETIK AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



LEHENENGO EUSKALDUNA

TALDEKAKO SAILKAPENA: Soraluze, S. Coop. / DEBABARRENAKO ONENA: Goritz Hornikuntzak



UDABERRI SARIA
martxoak 3



ABASCAL OROITZARREA
martxoak 17



OTXOA OROITZARREA
apirilak 21



SAN JUAN SARIA
ekainak 2



PEDAL EGUNA (irailak 22): Birjiñape kafetegia

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udal Kirol Patronatua
- Radio Eibar
- Izadi Loradenda
- Zirauna (Kirol Jantziak)
- Krabelin (Hotela-Jatetxea)
- Birjiñape Kafetegia
- Ketesa
- Casa Cantabria
- Casa Galicia
- Gestilan - Aholkularitza
- Premier Bidaiak

- Iruki Sagardotegia
- Marqués de Saka Ganadutegia
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Azitain Jatetxea
- Larragest Inmobiliaria / Aseguruak
- Mapfre
- DYA - Eibar
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- Soraluze S. Coop.
- CDR-Bikes Eibar
- Guria Elektrizitatea

- Pneumax
- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia
- Andoni Retenaga (EBK-Eibarko Bizikleta)
- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Perlakua Agroturismo-Jatetxea
- Kalitatea
- Asimair Konpresoreak
- Eibarko Batzokia
- El Corte Inglés
- La Caixa



Cristina Loeda seigarren Kirol Probak ligan

Azkoitia-Azpeitiaren XX. edizioa jokatura, Eibarko atleta Kirol Probak ligaren 4. edizioko goiko postuetan jarraitzen du, seigarrenean hain zuzen; Ernesto Etxabe (48.a) eta Fermin Sebastian (66.a) dira gure herriko hurrengo ordezkari onenak sailkapen horretan. Hamabi eibartar izan ziren aurtengo Azkoitia-Azpeitian: zazpi erdi-maratoia betetzen eta beste bostak lehenengo aldiz antolatu duten zazpi kilometro eta erdiko herri-lasterketan. Lasterketa nagusian Mark Kiptook eta Girma Tsgeredak irabazi zuten. Lasterketa motzean, berriz, Aitor Etxeberria eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra nagusitu ziren.

Dominak Eibarrera Espainiako eski txapelketan

Candanchun jokaturako iraupen eskiko Espainiako txapelketan, Klub Deportiboko lau eibartar izan ziren beste euskaldun askoren artean: Jone eta Naia Saez kadeteetan eta Elene Gisasola eta Julen Chacón infantiletan. Lasterketa bikainak ikusteko aukera izan zen eguraldi zoragarria ekarri zuen egunean eta, giro apartak lagunduta, hainbat domina bildu zuen laukoteak.



Lau eskiatzaileek ondo gozatu zuten txapelketan.

Durangok 4-0 Garajes-i

Durangok txapelaren bila dihardu oraindik, azken jardunaldian ordura arteko liderra goleatu eta gero. Garajes Garciaen porrotak Txoko kokatu du lider berriro, azken honek 2-0 irabazi baitzion Esmorga Akarari. Une honetan, Txokok 54 puntu ditu, Garajes Garcia.com-ek bat gutxiago eta Durango eta Koskor lau puntura daude (Durango partidu bat gutxiagorekin).

MARATOI ERDIA

33	Asier Cuevas	1h15'21"
55	Josu Azkonaga	1h19'14"
74	Cristina Loeda	1h20'18"
81	Eduardo Talán	1h20'57"
177	Igor Gallastegi	1h25'49"
183	Asier Tolosa	1h25'50"
266	Armando Azkonaga	1h29'48"

HERRI-LASTERKETA

65	Fermin Sebastian	34'39"
67	Aitor Rodriguez	34'46"
71	Olga Herrero	35'22"
107	Nerea Oteiza	39'12"
108	Cyndi Birberfg	39'12"

Markel Alberdi igeriketa Mundialetara

Eibarko igerilaria Bartzelonan izango da uztailearen 19tik abuztuaren 4ra arte bertan jokaturako diren munduko txapelketetan. Gaur egun Bidasoa taldearekin lehiatzen duen igerilariak 4x100 metroko errelebotan hartuko du parte, Aschwin Wildeboer, Rafa Muñoz eta Aitor Martinezekin osaturiko duen laukotean. Pontevedran ere izan da Alberdi, Urbateko Nora Varelaekin batera, Espainiako absolutuen open txapelketan, eta 5. postua eskuratu zuen libre erako 50 eta 100 metrotako probe-



tan. Nora Varela, bestalde, 10.a izan zen 50 bularreko proban eta 13.a 200ekoan.

Urbateko benjamin eta alebin mailako igerilariak, bestalde, Oñatin lehiatu zuten kirol zehaztasun ligako 4. jardunaldian eta, 4x50 estiloko errelebotan, neskek Gipuzkoako lehenengoak izan ziren.

Juanjo Romero liderra Euskadiko duatloi Zirkuitoan



Andoni Mayo Romerorekin.

Delteco Eibar Triatloiko ordezkariak Euskadiko Zirkuitoko lidergoa lortu zuen betetera 2 mailan, Ermuko duatloian bigarren eta Zornotzakoan bosgarren egin eta gero. Ermuan jokoan zegoen duatloi sprint txapelketan ez zen bera izan Eibarko ordezkari bakarra eta, horrela, Pello Osoro 3.a izan zen 23 urtetik azpikoetan, Txomin Osoro 4.a juniorretan eta taldeka laugarren postuan amaitu zuen Deltecok

Eibar Eskubaloiko jubenilak Euskadiko txapelketan

Maila ona eman zuten gure herriko ordezkariak Gasteizen jokaturako azken fase horretan. Hala ere, Irungo Bidasoarekin 22na berdindu eta gero, 21-25 galdu zuten Zarautzekin eta 26-28 bertako Corazonistekin. Ia aurkari guztiak urtebete nagusiagoak izan arren, eibartarrek maila bikaina eman dute euren lehenengo urtean.



Jubenilen mailako Espainiako txapelketarako azken fasean parte hartu zuen taldea.

Pedro Agirregomezkorta Europako txapelkun

Eibarko Klub Deportiboko atleta, entrenatzaile eta askoz gehiago den kirolariak azken egunotan Donostian jokatu den beteranoen Europako txapelketan maila bikaina eman du berriro ere. 80 urtetik gorako mailako marka berria ezarri du, gainera, disko jaurtiketan irabazitako urrezko dominarekin batera. Seigarren jaurtiketan 30,32 metrotaraino bota zuen diskoa eta 2011tik Richard Rzehakak zuen 29,12koa metro bat eta 20 zentimetrotan hobetu. Horrez gain, pisuarekin ere parte hartu zuen eta, 9,69 metroko markarekin, 7. postua eskuratu zuen.



Petrusek goi mailari eusten dio.

Tomas Vouilloz 6. Heptathloiko Espainako txapelketan

Txapelketa ederra egin zuen Deporrek Tomas Vouilloz atleta jubenilak Espainako txapelketan. Bere marka 200 puntu baino gehiagotan hobetzea lortu zuen; 4.428 punturekin (7.61-6,29- 11,36- 1,76- 8.96- 3,50- 2:56.18) 6. postuan sailkatu zen.

Eibarko bost xakelari Donostiako Irekian



Hiru jokatzen eta beste bi epaile lanetan, Eibarko Klub Deportiboko bost xakelari izan dira Donostiako Nazioarteko 36. xake txapelketan. 11 herrialdeetatik etorritako 121 jokalaririk izan dira torneoan eta, zortzi egunetan jokatutako bederatzi txanden ondoren, Alex Aranzabal izan da eibartar onena, Jon Arana eta Jose Antonio Garridoren aurretik, Daniel Alsina maisu handi kataluniarrak irabazitako txapelketan. Hilaren 13an jokatuko den Gipuzkoako Ligaren azken jardunaldiaren ondoren, Groseko Udaberriko Irekiaren 9. edizioan izango dira eibartarrak.

Narbaiza-Ruiz Udaberriko txapelkun

22-10 nagusitu zen Eibarko Klub Deportiboko bikotea Astelena frontoian jokatutako 3. mailako Udaberri Sariko finalean. Lehen tantoen fasea kenduta, nagusitasun osoz gailendu ziren eibartarrak. Narbaizaren keinuek aurkariak euren tokitik ateratzeko balio izan zuten eta ezker airez bi tantu bi-

kain egin zituen partiduen erdialdean, eta Ruizek ondo baino hobeto lagundu zion. Gaur, bestalde, Astelena bertan eta Deba Arroko txapelketaren barruan, Unamunzaga-Larreategi Deporrek bikoteak Eskoriatzako Zubizarreta anaien aurka jokatuko du (19.15etan hasita).



MARIXABEL IBARRA GARITAONANDIA

1. URTEURENA (2012-IV-7)



*Gure albotik juan zifian,
baiña zure irribarre eta
maittasuna beti egongo
dira gure bihotzetan.*

ETXEKOEN PARTEZ



berriak

PEÑA SPORT - EIBAR

Eibarko taldeak Tafallan jokatuko du domeka arratsaldean, 17.00etan hasita, Peña Sport taldearen aurka, azken honen San Francisco zelaian. Garitanoren mutilak bigarren postuaren bilaren borrokan daude murgilduta; nafarrak, aldiz, beheko postuetatik ihes egiteko borrokan.

SASKIBALOIA

Ruibal Alquiler de Vehiculos-ek 60-52 irabazi zion Donibasket-i azken jardunaldian eta, emaitza horrekin, eibartarrak sailkapeneko bigarren postura igo dira, beste lau talderekin berdinduta. Mikel Arnaiz (20 puntu) eta Will Polanco (13) izan ziren saskiratzzaile onenak.

Hirugarren maila probintzian jokatzen duen Katu Kalek, bestalde, hiru garaipen jarraian lortu ditu: azkena Mutrikuren aurrean erraz nagusituta (70-45). Garaipen horiekin, Eibarko taldea 7. postura igo da, Irungo Erroibideren atzetik. Azken talde hau hartuko dute eibartarrek hurrengo jardunaldian (hilaren 14an, 18.30etan)



AIMAR GOENAGA (idazlea) "Lagunak endredatuta animatu naiz idaztera"

Ustekabe fanfarrean musikari eta Hankamotzak eskolakoekin bertsotan sarritan ikusi dugu Aimar Goenaga eibartarra, baina orain berak idatzitakoak irakurtzeko aukera ere badugu, bere lehenengo liburua argitara eman berri du eta: "Beti gorriak! Patxaran, Osasuna ta San Fermin". Bubok plataforma digital independentearen bidez argitaratutako liburua www.bubok.es webgunean eros daiteke.

- Nola animatu zinen liburua idaztera?

Koadrilako lagunak aurretik nik idatzitako testuak irakurrita zizutzen, kontaktzen ditudanak gustatzen zaizkie, baita horiek kontatzeko orduan erabiltzen dudan estiloa... Gauzak horrela, liburua idazteko animatzen hasi ziren eta piskat eurek endredatuta ekin nion lanari. Urtebete inguru eman dut idazten eta iazko udan eman nuen argitara niretzat lehenengo liburua den hau.

- Nolako istorioa kontaktzen duzu?

Sanferminetan Iruñara parrandan doan Eibarko koadilari gertatutako gorabeherak osatzen dute istorioaren ardatza. Bertan daudela, ezustekoan hainbat gertakari tartean agertzen joango dira eta horiek istorioaren amaiera inork espero ez lukeen modukoa izatea eragingo dute.

- Eibarko koadrila sanferminetan... kontakizuna benetan gertatutakoetan oinarritutakoa da ala asmatu egin duzu?

Liburuan kontaktzen dudanaren hari nagusia goitik behera nik asmatutakoa da, baina tartean, liburuan jasota dauden pasadi-zoetako batzuk benetan guri edo inguruan gertatutakoak dira.

- Izenburua euskeraz ipini diozu, baina liburua berez gaztele-raz eta euskeraz, biak nahastuta idatzi duzu, ezta?

Narrazioa gaztelez idatzi dut, baina elkarrizketak-eta euskeraz daude. Gainera, euskalkiak erabili ditut, idaztarau eta bestelakoak zaindu barik, errealitatetik ahalik eta gertuen egoteko asmoz.

- Lana argitara emateko Bubok plataforma erabili duzu. Nola funtzionatzen du horrek?

Plataforma independentea da eta euren webgunean edozeini nahi duen liburua argitaratzeko aukera ematen diote, luze-erari lotutako gutxieneko baldintza batzuk betez gero. Formatu digi-talean zein paperean argitaratu daitezke liburuak, baina pape-rezkoan ale bakoitza saldu ahala, hori baino ez da argitaratzen.

- Eta esperientzia hau eta gero, liburu gehiago idazteko asmo-rik baduzu?

Bai, besteak beste lehenengo liburu honek bigarren parte bat eskatzen duelako.

Txirindularitzari eskainitako argazkiak

Eibarko Txirindulari Elkarteak argazki erakusketa inauguratu zuen atzo arratsaldean Untzagako jubilatuek etxean, iazko "Balentziaga Memoriala-Ixuako Mendatea" argazki lehiaketako lanekin. Aurtengo edizioa domekan jokatuko da eta Txirindularien Elkarteak orain-goan ere lehiaketa antolatu dutela gogorarazi nahi diete argazki-gintza zaletu guztiei. Parte-hartzearen inguruko informazioa ohiko tabernetan banatu dute antolatzaileek eta, bestela, elkartearen bulegora (Pagaegi kalean) zuzenean joateko aukera ere badago.



Eguen Zuri lehiaketako irabazleak

Martxoaren 22an zabaldu zuten Topalekuan Eguen Zuri argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa eta inaugurazioan bertan banatu zizkieten sariak aurtengo irabazleei: lehenengo saria Pedro Arriolak eraman du; bigarrena, berriz, Carlos Ramosek; eta hirugarrena Bakarne Elejaldek. Arrate Kultur Elkarteak antolatutako lehiaketan parte hartu dutenen lanak hilaren 31ra arte egon dira ikusgai.



Sari banaketa ekitaldiko irudia. LEIRE ITURBE

Li (buru-hausgarriak) lehiaketa martxan

Martitzenean ekin zioten Juan San Martin Liburutegian Li (buru-hausgarriak) lehiaketari. Aurreko edizioetako bidetari jarraituta, irakurketa eta ikerketa bateratuko dira Lehen Hezkuntzako 2. mailatik aurrerakoentzat pentsatutako jokoan: parte hartzera animatzen diren umeek irakurritako liburu bakoitzeko buru-hausgarri bat osatzen joateko piezak lortuko dituzte galdera batzuei zuzen erantzutean. Azken helburua puzzlean agertzen joango den irudia zeri dagokion asmatzea da.

El Mago de Oz musikala

Apirilaren 13an ikuskizun musikala hartuko du Coliseoak 17.00etatik aurrera: Lyman Frank Baum idazlearen "El Mago de Oz" istorio ezagun eta arrakastatsuari omenaldia egiteko sortu zuten musikala Mundiartistak taldekoek eta lau urteko tartean 800 emanalditik gora eskaini dituzte hamaika herritan. Coliseo antzokiko taula gainean musikari jarraituta antzetzuko duten lana familia osoarentzat pentsatuta dago eta protagonisten berbetan, "fantasiako mundu batean murgiltzeko gonbitea da, magian sinesten duten haurrei eta haurrengan sinesten duten hel-



Istorio ezagunari buruzko ikuskizun musikala sortu dute.

duei zuzendutako ikuskizuna". Sarrerak 16 eurotan eros daitezke, txarteldegian zein Kutxabanken kutxazain eta webgunean.

Coliseorako sarrerak Kutxabank-en ere

Coliseo antzokiko sarrera-salmenta sistema berria ezarri dute aste honetan bertan eta,

horri esker, zuzeneko ikuskizunetarako sarrerak Coliseoko leihatilan bertan erostean gain, orain Kutxabanken sarrera-salmenta zerbitzuaren bidez eskuratzeko aukera ere bada. Horretarako Kutxabaneko zerbitzu anitzeko kutxazainetara jo daiteke, edozein finantza-txartel erabilia. Internet bidez erosteko, berriz, www.kutxabank.es webgunera sartu eta bertan adierazitakoari jarraituta eros daitezke.

The screenshot shows the Kutxabank website interface. At the top, there are navigation tabs for 'Musika', 'Espetak', 'Ikuskizunak', 'Sarrerak salmentan', and 'Fotogramenak'. Below this, there's a search bar and a grid of event listings. Each listing includes a category (e.g., 'BESTEAK', 'DANTZA', 'ZINEMA'), the event name, the venue, and the date and time. For example, one listing is for 'ASTUN CANJEAR EN TAQUILLA' at 'Español Escup' on April 13th at 21:00. Another is for 'DANTZA ATALAR XVI CLUB ARETOA' at 'Teatro Victoria Eugenia' on April 13th at 21:00. The interface also includes a calendar view on the left and a 'parte de ti' logo on the right.

laburrak

UEU-KO IKASTAROAK

UEU-k eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartzen duten eibartarrentzat diru-laguntzak emango ditu Udalak: 2013ko uztailaren 31ra bitartean ikastaroren bat egiten dutenek izango dute eskaera egiteko aukera (Pegoran). Matrikularen %50 Udalak ordainduko du.

UDABERRIKO TXANGOAK

Arrate Kultur Elkarteak Oartzunera irteera antolatu du apirilaren 27rako. Arditurriko meatzak eta Herri Musikaren Txokoa bisitatzeko aukera izango da. Prezioa 33 eurokoa da (30 euro Kultuko bazkideek) bidaia, bazkaria eta museorako sarrerak barne. Informazio gehiago 943202299 zenbakian, martitzen eta eguenetan, 16.00etatik 20.00etara, edo arratekultu@gmail.com helbidean.

TEATRO INTERIOR

Apirilaren 12an Teatro Interior antzerki taldekoak Ermua Antzokian izango dira, 22.15etan "Republicados" antzezlan taularatzen. Sarrerak Lobianon eta BBKren kutxazain eta webgunean salgai daude, 8 eurotan.

kareaga

K Denda ixten dugulako

LIKIDAZIOA

%50 %30 %20

%15 urrean

- Bidebarrieta, 10 -
Tif. 943 20 80 45



Transmisio mintegirako izen-ematea zabaltzear

Maiatzaren 7an ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta "Euskararen transmisioari buruzko III. Mintegia" egingo da Portalean eta izen-emateko epea astelehenean, apirilaren 8an zabalduko dute (maiatzaren 3ra arte). Parte hartu nahi duenak normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzi (izen-abizenak, enpresa edo erakundea, telefona eta posta elektronikoa adierazita) edo 943200918 telefonora deitu dezake. Prezioa 25 eurokoa da, bazkaria barne (goizez edo arratsaldez bakarrik joateko aukera ere bada, 15 euro).



Mintegia goizeko 09.00etan hasiko da, Pablo Suberbiola soziologoaren "Arrue ikerketa 2011: emaitza nagusiak" hitzaldiarekin. Jarraian Joan Baptiste Coyos euskaltzainak gaur egungo euskararen transmi-

sioa aztertuko du, Ipar Euskal Herriko kasua adibidetzat hartuta. Izaro Susperregi Urtxintxa eskolako soziolinguistika koordinatzaileak "Haurrek nola, gurasoek hala? Ideietatik aplikaziora" izenburukoa emango

du ondoren. Haren atzetik Iñaki Pikabea psikologoak "Emozioen eta euskararen transmisioa familietan: etxean zer ikusi, hura ikasi" gaia jorratuko du eta goiza agurtzeko Paula Kasaes soziolinguistak "Euskaldun hazi Nafarroan" hitzaldia emango du.

Arratsaldeko saioa 15.20etan hasiko da: Idoia Etxeberriak eta Asier Sarasuak Aho-tsak.com proiektuaz eta ondare hori ikastetxeetan zabaltzeko aukeraz jardungo dute eta, ondoren, Kike Amonarriz soziolinguista eta aurkezleak gidatutako mahai-inguruak agurtuko du jardunaldia.

Trikitixa Eguna Elgetan



Debagoieneko IX. Trikitixa Eguna aurten Elgetan ospatuko da, apirilaren 20an. Antolatutakoen artean, besteak beste, herri bazkaria egingo da eta bertan parte hartu nahi dutenek apirilaren 16ra arteko tartea izango dute izena emateko. Umeen menuaren prezioa 13 eurokoa da (markarroiak tomatearekin, oilasko errea chips-ekin, izozkia, ogia eta ura / freskagarriak) eta helduen menuarena 18 eurokoa

(patatak errioxar erara, oilasko errea chips-ekin, goxua edo tarta izozkiarekin, ogia, edariak eta kafea). Izen-emateko Euskadiko Kutxako 3035 0023 91 0231147703 kontuan dirua sartu beharko da (zenbat ume eta zenbat heldu, bakoitza bere aldetik argi adierazita eta zein herritik doazen zehaztuta). Argibide gehiagorako 943206266 edo 676729551 telefonora deitu daiteke.



Artisten Elkartekoaren erakusketa

Eibarko Artisten Elkarteak gaur arratsaldean inauguratuko du urtero antolatu ohi duen taldekako erakusketa Portalean. Hilaren 28ra bitartean elkarteko 40 bat bazkideren orotariko artelanak ikusteko aukera izango da, martitzetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

CARMEN URBERUAGA URIONAGUENA (TXOMIN IRIONDOREN ALARGUNA)

2013ko urtarrilaren 25ean hil zen, 76 urterekin

Bere aldeko MEZA egingo da zapatuan, apirilaren 6an, arratsaldeko 19.00etan, Karmengo parrokian.

ALTZOA EIBARKO ALARGUNEN ELKARTEA



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IZARO, haraiñegun bost urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IRAIA, bixar urte bi beteko dozuzelako. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, ANDER, martxuaren 29xan urtebete egin zenduan-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, HIART, gaur bi urte egiten dozuz-eta. Zure tio eta tiaren partez.



Zorionak, LEIRE, bixar zortzi urte beteko dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HELENE, zure lehelengo urtebetetzian. Patxo potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, MIKEL, gaur lehelengo hamarrekora heltzen zaralako. Jarraitu beti bezain jator. Egun ona pasa! Etxekuen partez.



Zorionak, KALAKA, martxuaren 30ian bederatzi urte egin zenduaz-eta. Muxu pillua famelixa guztiaren partez.



Lasai, IZAR, arrebatoxo, PERU zure nebak hiru urte bete dittu eta bizitza honetan jakin biharreko guztiak erakutsiko deusuz-eta.



Zorionak, MARKEL eta ENEKO, gure printzipito eta gure pototoari, urte bi bete dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, JONE Arritokieta, hillaren 1ian sei urte egin zenduaz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, haraiñegun hiru urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak MADDALEN eta ELENE gure sudur gorri polittentzako!!!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

5an: 22.30
6an: 17.00, 19.45, 22.30
7an: 17.00, 20.00
8an: 20.30

"La banda Picasso"

Zuzendaria: Fernando Colomo



(2 ARETOAN)

5an: 22.30
6an: 17.00, 19.45, 22.30
7an: 17.00, 20.00
8an: 20.30

"El chico del periódico"

Zuzendaria: Lee Daniels



(ANTZOKIAN)

5an: 22.30
6an: 19.15, 22.30
7an: 20.00
8an: 20.30

"For greater glory"

Zuzendaria: Dean Wrigh



(ANTZOKIAN)

6an: 17.00
7an: 17.00

"Los Croods" 3D

Zuzendaria: Chris Sanders



BARIXAKUA 5

INDIANOKUA

16.30. Asanblada. Indianokua gaztelekuan.

FILMA

17.30. "Barbie. La bailarina mágica". El Corte Inglés-ean.

ZAPATUA 6

INDIANOKUA

17.00. Karaokea. Indianokua gaztelekuan.

DOMEKA 7

TXIRRINDULARITZA

09.00. XLII Balentziaga Oroitzarrea. Irteera Azitaindik. Amaiera 13.00ean Armeria Eskola parean.

INDIANOKUA

17.00. Filma. Indianokua gaztelekuan.

ASTELEHENA 8

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia). Beheko Tokian.

MARTITZENA 9

IKASTEN

10.00. "Filosofia para la vida" hitzaldia, Marisa Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.

INDIANOKUA

18.00. Play Wii. Indianokua gaztelekuan.

IRAKURKETA KLUBA

19.00. Idazlearekin berbetan: "Tangerreko ametsak", Jon Arretxerekin. Juan San Martin liburutegian.

EGUAZTENA 10

IKASTEN

10.00. Mendi-ibilaldia: Ziortza. Irteera Estaziñotik (Ardantzatik 10.03etan).

11.00. Kafe-tertulia: "Sexualidad en la tercera edad". Untzagako jubilatatu etxean.

INDIANOKUA

18.00. Sukaldaritza. Indianokua gaztelekuan.

EGUENA 11

IKASTEN

10.00. "Los astros como fuente de leyendas, creencias y supersticiones" hitzaldia, Esteban Estebanen eskutik. Armeria Eskolan.

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuzeko en entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Lehiaketak

✓ Maiatzaren 2ra arte

EIBAR KE-REN 75. URTEURRENERAKO LOGOA ETA ESLOGANA. 1940-2015@sdeibar. com helbidean.

✓ Maiatzaren 10era arte

SANJUANAK 2013 EIBARREN KARTEL LEHIAKETA. Pegoran.

ALKOHOL LARREGI EDATEAREN KONTRAKO PEGATINA LEHIAKETA. Pegoran.

✓ Ekainera arte

LI (BURU-HAUSGARRIAK) IRAKURKETA ETA IKERKETA LEHIAKETA. Juan San martin liburutegian.

ikastaroak

✓ Sukaldaritza makrobiotikoa

Apirilaren 6an hasita, hileko lau zapatuetan, 10.00-13.30. Portalean. naturalbiodenda@gmail.com helbidean edo 943567159 telefonoan.

✓ Sukaldaritza ekologikoa

Apirilaren 10ean hasita, eguaztenero, 18.30-21.30. Portalean. Itxesi belardendan (943203219). 10 euro.

✓ "Mindfulness, nola gutxitu estresa erabateko arretaren bitartez"

Apirilaren 10etik ekainaren 5era, eguaztenero, 17.00-19.00. Portalean. asoc.defibel@gmail.com helbidean edo 648977587 / 943700828 telefonoetan.

✓ Mendiko GPS-a mugikorretan

Apirilaren 12an eta 13an, 09.30-13.30. eitten.team@gmail.com helbidean edo 688846537 telefonoan. 20 euro.

HOROSKOPOA

ARIES

Ez zaitez lotsatu, nahi zenuelako egin zenuen-eta. Batek baino gehiagok nahiko luke izan zuk duzun adorea!

TAURUS

Metro gutxi batzuk egin bazenituen ere, nahikoa izan ziren euskeraren alde egiteko. Ipini zapatilak hurrengorako!

GEMINI

Nahi baduzu, zergatik ez duzu egingo? Utikan beldurrak! Zerbaiz lortzeko horren alde egin besterik ez dago.

CANCER

Aste Santu bikaina pasatu duzu. Astroek zure alde zeuden eta egun zoragarriak eskaini dizkizute. Hori zuretako!

LEO

Ez baduzu gorputza gehiago zaintzen, jai hauetan gertatu zaizuna... Hain zaila egiten zaizu pixka bat zaintzea?

VIRGO

Nahi duzunean ederki egiten dituzu gauzak, gutxitan nahi izaten baduzu ere. Badakizu edozertarako gai zarela!

LIBRA

Lagun batek ez du bere une onena bizi eta zure laguntza beharrezkoa izango du. Gutxirekin konformatuko da.

SCORPIUS

Ez baduzu modu onenean azaltzen, baina funtsean arrazoia daukazu. Berriz azaldu, ea behingoz ulertzen dizuten.

SAGITTARIUS

Alai ibiliko zara datozen asteotan, pozik. Zergatik ez dakizula? Astroen kontuak dira: zuri aprobetxatzea dagokizu.

CAPRICORNIUS

Ez zara gutxirekin konformatzen eta gertatuko zaizunak ez du eragin handia izango zugar. Hala ere, maisua zara!

AQUARIUS

Mendira joateko egun aproposak izan dituzu Aste Santuan. Inoiz ez da berandu eta zaletasuna berreskuratuko duzu.

PISCIS

Maitasunaren sareetan jausi zara eta ez da oso erraza izango irtetea. Seinale ona izango da sarean harrapatuta jarraitzea.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Apirilaren 28ra arte

EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA. Lanen erakusketa. *Portalean.*

2012KO BALENTZIAGA OROITZARREA - IXUAKO MENDATEA. Argazki lehiaketako lanak. *Untzagako Jubilatatu Etxean.*

✓ Apirilaren 30era arte

ARATOSTEAK 2013 erakusketa. *El Ambigú eta Portalea tabernetan.*

JOSE A. ANDRES FERRIZ. Argazkiak. *Klub Deportiboan.*

hildakoak

- Pedro Villamarin Hernandez. 56 urte. 2013-III-18.
- Sabina Agirrealloa Kalzakorta. 86 urte. 2013-III-24.
- Antonio Igarzabal Gaztañaga. 68 urte. 2013-III-24.
- Josefa Feijoo Seguin. 54 urte. 2013-III-25.
- Esperanza Etxabe Urbietia. 86 urte. 2013-III-26.
- Aniceto Chimeno Perez. 79 urte. 2013-III-27.
- Isaac Illana Bracicorto. 86 urte. 2013-III-28.
- Blanca Errazu Azkarate. 92 urte. 2013-III-29.
- Carmen Ariznabarreta Ariznabarreta. 92 urte. 2013-III-31.
- Concepcion Markina Monteagudo. 89 urte. 2013-IV-1.
- Edita Vazquez Castro. 62 urte. 2013-IV-1.
- Mariaje Garcia Flores. 49 urte. 2013-IV-2.
- Jaime Vazquez Dieguez. 61 urte. 2013-IV-2.

jaiotakoak

- Ander Bilbao Oregi. 2013-III-15.
- Uxue Solana Dominguez. 2013-III-19.
- Nerea Solana Dominguez. 2013-III-19.
- Jone Tueros Bengoetxea. 2013-III-28.
- Miren Fernandez Hernandez. 2013-III-28.
- Enara Nogales Cortés. 2013-III-28.

farmaziak

✓ barixakua 5

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ zapatua 6

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ domeka 7

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

✓ astelehena 8

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ martitzena 9

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ eguaztena 10

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

✓ eguena 11

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

✓ barixakua 12

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etarik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.

DONOSTIA-EIBAR. Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

			6		2	8
	3		1			5
				5	4	7
	1		9		3	7
3		5			7	4
	2	1		9		
8					4	5
4		3			6	

SUDOKUA

8	5	9	7	1	3	6	4	2
4	2	3	5	6	9	1	7	8
7	1	6	4	2	8	9	5	3
5	6	1	9	4	2	8	3	7
3	7	4	1	8	6	2	9	5
2	9	8	3	5	7	4	6	1
1	4	7	2	9	5	3	8	6
9	8	5	6	3	1	7	2	4
6	3	2	8	7	4	5	1	9

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
 – Pisua salgai Barrena kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. Berritua. Eguzkitsua. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 659-605863.
 – Pisua salgai Fermin Calbetonen. Garaje-trasteroa aukeran. Aldapa barrik bizitzeko aukera ezinhobea. Tel. 646-680445.

1.2. Errentan

– Logelak alokagai Eibarko erdialdean. Logela argitsu eta handiak, sukalde eta bainugelarekin. Tel. 670-793312.
 – Pisua alokagai Elgoibar erdialdean. 2 logela. Berritua, jantzi eta sartzeko moduan. 400 euro. Tel. 660-056240.
 – Pisua errentan hartuko nuke. Tel. 615-458103.
 – Pisua errentan hartuko nuke Eibarko erdialdean. Tel. 618-354218.
 – Etxea konpartitzen da Arraten. Tel. 627-040419.
 – Logela alokagai. Aukeran neska nahiago. Tel. 686-610074.
 – Pisua errentan hartuko nuke Eibarko erdialdean. 2 edo 3 logelakoa. Tel. 648-180233.
 – Etxea alokagai Deban hilabete guztietan (abuztua izan ezik), hilabetea edo asteka. Garajea eta terrazarekin. Itsasora begira. Urgain jatetxearen gaineko azken pisua. Tel. 649-928961.
 – Pisua behar da, 2 logelakoa, Eibarko erdigunean. Tel. 657-125654.
 – Logela behar da Eibarko erdialdean. Tel. 657-125654.
 – Pisua errentan behar da Eibarren. Tel. 634-007292.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 logelarekin. Tel. 657-125654.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. 2 zenbakia, 1 atea. Tel. 629-886258.
 – Garaje zabalak, marra artekoa, alokagai Ego-Gain 12an. Tel. 680-824100.
 – Garaje itxia alokagai Legarre/Arrate-Bide inguruan. Behean eta manobratzeko erraza. Tel. 943-201294 eta 645-728317.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
 Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
 Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Baita asteburuetan eta orduka ere. Tel. 627-652870.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuetan eta gauzez ere bai. Tel. 608-886701.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuetan eta gauzez ere bai. Tel. 664-111706.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.
 – Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 650-068883.
 – Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-302653.
 – Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-272774.
 – Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 658-191318.
 – Neska arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko. Orduzabala. Tel. 618-354218.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarero jarduteko. Tel. 652-532589.
 – Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita orduka ere. Tel. 679-912841.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-004374.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-925929.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-180233.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-526228.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-610074.
 – Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 674-713122.
 – Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile eta pintore moduan. Tel. 647-898016.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-253170.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-362251.
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 657-396018.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 626-197217.
 – Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako egiteko 13.00tik 17.00etara. Tel. 618-875007.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-068439.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 671-742142.
 – Neska eskaintzen da tabernak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-262868.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-911069.
 – Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 618-354218.
 – Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 657-125654.
 – Neska eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 699-232823.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste lan batzuetarako. Tel. 634-401768.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia mendeko pertsonak zaintzen eta erreferentziak. Tel. 669-426820.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Tel. 632-054894.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 628-014327.
 – Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.

4.2. Langile bila

– Estetizista eta podologo behar dira Eibarko ileapaindegi zentro batean. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Gitarra elektrikoko klaseak ematen dira. Baita etxean ere. Merke. Tel. 679-740061.
 – Zure azala zaindu nahi duzu? Doako bi ikastaro eskaintzen dira azala zaindu eta automakillajeari egiteko. Tel. 658-719703.
 – Atzerriko hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Jaunartzeko soinekoa salgai. la berrira. Tel. 658-191318.
 – Bugaboo "all black" edizioko sillatxo salgai. Egoera ezinhobean. 600 euro. Baita Fisher-Price markako bidaiatzeko sehaska ere (60 euro). Tel. 655-709707.
 – Nagusiak mugitzeko garabi eta ohe artikulatu ortopedikoak salgai. 1.800 euro. Osagarri guztiekin. Tel. 94-4232377, 675-712737 eta 943-702654.

6.4. Bestelakoak

– Jostailuak tokia okupatzen dizute etxean eta ez dituzu behar? Nik jasoکو ditut. Tel. 665-705978.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Lanerako Gertu!

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 10 18:00

Maiatzak 25 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2013-2014

Eskeintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Zumaia

Etxebizitza berriak
preziorik onenean

Zumaiaiko Ardantzabiden
prezio mugatuko
32 etxebizitzetako
bat nahi baduzu,
zoaz Udaletxera
eta izena eman.

Epea:

martxoaren 11tik
apirilaren 19ra.



943 31 68 68

www.sukia.com



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

Argibide gehiago hemen:

www.ardantzabide.es



ARDANTZABIDE

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.



TERRAZA HANDIAK



EPOCA-GORO

San Juan, 5 - 943 700 216 - www.epocasukaldeak.com
 ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA

BERRITU ZURE ETXEA ILLUSIOZ
 6UK LAGUNDUKO DIZUGU



RPS 04/02

IRAZABAL
 clínica dental

DOKTOREAK: Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

hartz-zuritzea

**Irazabal klinikan
 hortzak zurituko
 dizugu saio bakarrean**



Prezio bereziak!!!

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 08.00-22.00 / Larunbatetan: 10.00-14.00

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com